

# HAUR ETA GAZTEENTZAKO LIBURUEN GIDA

Irakurzaletasuna sustatzeko irakasleentzako lantegiak 2018






irakasleak “emozionatu” nahi ditugu, irakur dezaten eta ikasleak ere emozio horrekin kutsa ditzaten. Horretarako joango dira 2018an Galtzagorriko profesionalak EAEko 70 eskoletara, irakasleentzako lantegi praktikoak eskaintzera.

Esku artean duzun gida honek “Irakurzaletasuna sustatzeko irakasleentzako lantegiak” egitasmoaren lehen edizioaren jarraibideak biltzen dituela esan dezakegu. Galtzagorrik urteak daramatza euskarazko haur eta gazte literaturan argitaratzen diren obrak irakurtzen, baloratzen eta hautatzen, ondoren bere egitasmoetan erabiltzeko: Irakurketa mintegia, Liburu en altxorra, Liburu gaztea, e.a. Egitasmo horietarako egiten diren liburu zerrendak hartu dira kontuan gida liburu honetan bildu diren izenburuak hautatzerakoan. Baita, euskal haur eta gazte literaturan aditu diren Galtzagorriko kide hainbatek egindako “ezinbesteko” zerrendak eta elkartearen kolaboratzaile diren literatur kritikari zenbaitek idatzitako kritikak ere. Hala nola, Xabier Etxanizek, Imanol Mercerok eta Lore Agirrezabalek idatzi eta “Gara”, “Berria” eta “Argia” agerkerietan argitaratutakoak.

Guztira EHGLko 40 izenburu jasotzen ditugu hemen. Batzuk berri-berriak, aurreko bi urteetan argitaratuak. Beste batzuk, zaharra- goak izanik, duten kalitate eta interesagatik berreskuratu nahi izan ditugu eta berriz ere bizia eman. Obra klasikoak ere badaude. Eta, nola ez, baita euskal haur literaturako bi liburu klasiko oinarri hartuta, Galtzagorrik argitaratutako bi app-ak ere, haur zein gaztetxoak irakurketara erakartzeko tresna eraginkorrek direlako ustea baitugu. Irakurlearen adin gomendatuaren arabera banatu ditugu guztiak. Genero, egile, gai, formatu eta irakurketa maila ezberdinetarako izenburuak dira. Abiapuntu on bat osatzen dute, beraz. Zerrenda, irakasleentzako lantegietako edukiak bezala, urtero berrituko baitugu, argitaratzen diren izenburu berriekin osatuz eta aurreko urteetako beste liburu batzuk ere berreskuratuz.

ABEZEDARIO TITIRIJARIO .....	8
BALEA .....	9
MUNDUKO OPARIRIK EDERRENA .....	10
KAKA PUTZA .....	11
HASERRE GORRIA .....	12
MAGNOLIA JAUNA .....	14
TONTOLAPIKO .....	15
ZORTZI KOLORE .....	16
ILARTXO .....	17
EUSKAL HERRIETAKO IPUINAK .....	19
HARTZ TXIKI .....	20
ARBOLA ESKUZABALA .....	22
ISPILUTXO .....	24
PIZTIA TXIKIAK .....	25
NATURAZ GOZATZEKO ESKULIBURUA .....	26
XOMORROPOEMAK ETA BESTE PIZTIA BATZUK .....	27
ZERUA GRIS DAGO .....	28
ARRAROA .....	30
MARTIN .....	31
KLARISA UME DESAGERTUAREN KASUA .....	32
NEMO KAPITAINAREN AZKEN BIDAIA .....	33
HAIZEAK HITZ, HITZAK HAIZE .....	35
IXON .....	37
OIHARTZUN ISILAK .....	38
PIKONDOAREN BALADA .....	39
GERRAK EZ DU IZENIK .....	41
ZENBAT LUR BEHAR DU GIZON BATEK .....	43
ZER DEMONTRE DAGO AULKIEN AZPIAN .....	45



## ABEZEDARIO TITIRIJARIO

(letren txotxongiloa)

Idazlea: Juan Kruz Igerabide

Ilustratzailea: Elena Laura

Denonartean, 2017

ISBN: 978-84-16791-51-4

60 orrialde

Alfabetoko letra larri eta xeheen forma oinarritzat hartuz (A esku-eskailera, B ama haurdun...), abezedario bat osatu da poema liburu honetan. Letra handi eta txiki bakoitzari poema bat eskaini dio Igerabidek eta letra horiei forma eman die Elena Laurak, letrak ia poemak txotxongilo bilakatuz. Gainera, letra bakoitzak poema fonetiko bat ere badu eta tarteka narrazio txikiak agertzen dira.

Hitz jolasetarako eta irudimena martxan jartzeko liburua da. Letren formek interpretazio irudimentsu, barregarri eta dibertigarriak osatzen dituzte. Gainera, tonu umoretsua darie poemei, zein ilustrazioei. Letrak ezagutzen ari diren haurrak erraztasunez identifikatu ahal izango dituzte poemak zein ilustrazioek iradokitzen dituzten irudi esanguratsuak gogora ekarriz.



## MUNDUKO OPARIRIK EDERRENA

Egilea: Claudia Bielinsky

Itzultzailea: Uxoa Iñurrieta Urmeneta

Ibaizabal, 2016


ISBN: 978-84-91062-48-6

20 orrialde

Poz-pozik esnatu da hartz aita, bere urtebetetze eguna delako. Seme-alabek opariaren bila ez hasteko eskatu diote, baina garbiketa-lanak aitzakia hartuta, etxeko bazter guztiak arakatuko ditu. Marrazo bat, bi balea, hiru ahate, lau eltxo... animalia ugari aurkituko ditu, baina azkenean kaxa handi batekin egiten du topo, eta bertan bai, kaxa barruan aurkitzen du munduko oparirik ederrena: bere hamar seme-alabak!

Hegal tolestuekin jolasteko egina dagoen album ilustratu handia da (28x21 cm), irrika piztu nahi duen gidoiarekin. Aurkitu bildumak, azal hegalen bidez, aukera ematen du eguneroko ohituren funtsezko kontzeptuekin ohitzeko eta itxuren atzetik dauden istorioak ezagutzeko. Azal hegalek irakurlea irakurketarako dinamika aktiboan murgiltzen dute eta testu laburrek bidea ematen dute umearekin interakzioan aritzeko. Maitasuna eta familia afektuz diharduen liburu honek aukera emango die haurrei tonu umoretsu eta jolastian zenbakiakin jolasean aritu eta animaliak ezagutu eta identifikatzen joateko.

Ilustrazio soilak eta koloretsuak, testura ezberdinekin eraikiak eta umoretsuak. Irakurleek erraz identifikatzeko modukoak izateaz gain, txikientzako erakargarriak eta dibertigarriak suertatzen direnak.




## HASERRE GORRIA

Egilea: Mireille D'Allancé  
 Itzultzailea: Alice Casenave  
 Ikas, 2016  
 ISBN: 978-2-84963-131-7  
 36 orrialde

Peiok biziki egun txarra iragana du. Ez da umore onean, eta gainera, aitak erasiatu du. Orduan Peiok bere baitan sentitu du gauza ikaragarria igaten. Gauza horrek makur handiak egin ditzake... aski goiz ez baldin bada geldiarazten.

Haserre gorria edo “kasketa” zer den eta nola baretu album ilustratu honetan azalduko zaigu Peioren eskutik, eta irakurlearen bihotzera zuzenean mintzo da. Istorio dibertigarria, non gure sentimenduak identifikatzeko gai izango garen eta pertsonifikatu egingo diren. Haserre Gauza bilakatuko da eta Peiok harekin zer egin jakin beharko du. Norbera eta norberarengandik ateratako haserrearen arteko gatazkaz mintzo zaigu tonu guztiz goxo eta baikorrean, haserreaz mintzo bada ere.

Ilustrazioek garrantzi handia hartzen dute. Adierazkortasun eta indar handiko marrazkiek, maisutasunez lortzen dute haserrearen indarra islatzea: ongi definitu gabeko marra nahasiak, kolore indartsuak... Baina, era berean, testuaren goxotasun eta gertutasun bera adieraztea lortzen dute. Haserre ez da munstro beldurgarri gisara ikusten, menperatu eta txikiagotu egin daitekeen izaki xelege gisara baizik.



## MAGNOLIA JAUNA

Egilea: Quentin Blake

Itzultzailea: Eva Linazasoro

Pamiela-Kalandraka, 2016

ISBN: 978-84-7681-949-4

36 orrialde

Album ilustratu hau Quentin Blake handiaren klasiko bat bilakatu da, 1980an argitaratu zenetik. Kontakizun errimatua dugu, pertsonaia maitagarri bat ardatz duena. Umorea nagusi, pertsonaiaren gora-behera txoroak gertatzen dira liburu alai honetan, oin batean bota falta izanagatik gertatuak. Dena aldatuko da, ezustean, pape-rean bildutako opari bat iristen zaionean...

Magnolia jauna ozenki irakurtzeko liburu aproposa da; erritmoa biltzen du, egitura narratiboak errepikatzen dira eta irudi deskriptiboak ditu. Marrazki deigarriak egina, xehetasun eta kolore bizikoak, eszena bakoitzaren adierazkortasuna eta bizitasuna areagotzen dutenak. Ilustrazio errebelde eta dibertigarriak dira, detaile ugarikoak... haurren arreta eskatuko dutenak eta eurei istorioa osatzeko bide emango dietenak.

Ezaguna da Quentin Blakek bere liburuetan pertsonaia bi-txiak sortzeko duen joera. “Angelika Milapatrikaren patrikak” edo eskuartean dugun “Magnolia jauna” horren lekuko dira: konbentzionalismoetatik urruntzen diren pertsonak, musikaz eta naturaz gozatzen dutenak, bere kasa dabiltzanak, besteen iritziei erreparatu gabe. Direnak izateagatik eta irakurleari irri bat ateratzeagatik, maitatuak.





## ZORTZI KOLORE

Egilea: Lorena Martínez Oronoz

Denonartean, 2017

ISBN: 978-84-16791-50-7


24 orrialde

Poesia liburu ilustratua da hau, jolasa, bizitza, maitasuna, egunerokotasunaz... hitz egiteko aukera ezinhobea eskaintzen du. Ilustrazio garbi eta esanahiz beteek poemak ulertzen laguntzen dute. Era dinamiko eta freskoan kontatuak daude.

Poesia bisuala zer den ikusteko aukera ezin hobea eskaintzen du liburu honek. Bertan, Irakurketaren erritmoa ilustrazioekin lagunduta doa.

Lehen irakurleak poesiara hurbiltzeko material plastikoa da, sormena lantzeko proposamen erraza eskaintzen duena. Ahoz gora irakurtzeko material ikusgarria da, kontakizuna laguntzen baitute, haurren arreta handituz. Erabilera anitzak izan ditzakeen liburua da, gainera, adin tarte desberdinetan.

Liburu ilustratu honen istorioak Erpurotxori kiñu bat egiten dio, klasikoa gaurkotuz. Irakurketa erraza eta dinamikoa eskaintzen du album honek eta ilustrazio argi eta ederrek istorioa osatu eta umore ukitua eransten diote.



## HARTZ TXIKI

Idazlea: Else Holmelund Minarik

Ilustratzailea: Maurice Sendak

Itzultzailea: Manu López Gaseni

Pamiela-Kalandraka, 2015


ISBN: 978-84-7681-827-5

63 orrialde

“Hartz Txiki” sei liburuz osatutako sail bateko lehen titulua da. Hartz familia bat da liburu guztietako protagonista, eta liburu hauek oso ezagunak dira mundu osoan: milioika ale saldu ez ezik, telebistarako moldatuak ere izan ziren.

Lehen obra hau 1957koa da, eta hartz maitagarri horien eguneroko bizitzari buruzko lau ipuin laburrez osatuta dago. Hartz Amak, Hartz Txiki zaindu nahian, hotzetik babesten du, urtebetetze-tarta bat oparitzen dio, adarra jotzen dio ilargira joan nahi duela esaten dionean eta oso ipuin berezia kontatzen dio lotara joan baino lehen. Kontakizun laburrak dira eta elkarrizketa asko dituzte, irakurtzeko zein ozenki kontatzeko ezin aproposagoak, erraz errepika daitezkeen esaera askoren bidez haurrek parte hartzeko gonbita egiten dutelako.

Egunerokotasunekoak, maitasunezkoak, hartzarotik gertu dauden egoeren ingurukoak eta sorpresaz beteriko aurkikuntza xumeak dituzten istorioak dira. Minarik haurren munduari buruzko ezaugarri zehatzak helarazi zituen istorio hauen bitartez: ziurtasun beharra, autonomia beharra eta familia eta lagunak egitearen beharra guzti horretarako.



## ARBOLA ESKUZABALA

Egilea: Shel Silverstein

Itzultzailea: Manu Lopez Gaseni

Pamiela-Kalandraka, 2015

ISBN: 978-84-7681-906-7

60 orrialde

Adiskidetasuna, maitasuna eta ingurumenaren aldeko kontzientzia pizten duen klasiko baten berreskurapena da. 1964an argitaratu zen lehen aldiz album ilustratu hau; eta orain, 50 urte pasa ondoren, euskaraz irakurtzeko aukera dago. Era samur eta hunkigarrian, haurtzarotik helduarorako bidean, arbola eta mutiko baten arteko maitasun istorioa kontatzen zaigu: “Bazen behin arbola bat... mutiko bat maite zuena. Eta mutikoa egunero etortzen zen eta haren hostoak biltzen zituen haiekin koroak egin eta basoko errege bihurtzeko”. Mutikoa, baina, heldu egingo da; utziko dio arbola bisitatzeari, eta harekin bakarrik gogoratuko da arbola haren beharra duenean. Baina, arbolak beti dena emango dio lagunari. Ahal duen guztia. Bai eta amaieran atsedean hartzeko lekua ere. Biek, hasieran bezala, elkarrekin amai dezaten. Natura eta gizakia.

Gure gizarteko kontsumismoaren eta naturarekiko desfasearen inguruko gogoeta izan daiteke istorio hau. Baina, batez ere maitasunaren eta adiskidetasunaren inguruko istorioa da “Arbola eskuzabala”.

Shel Silversteinen lan honek ez du kolorerik, zuri-beltzean egina da eta marrazki eta trazu sinpleen bidez adierazten zaigu irudia. Hala ere, adierazkortasun eta indar handiko ilustrazioak dira eta protagonisten harremanaren esanahia indartu eta osatzeko funtsezkoak.



## ISPILUTXO

Idazlea: Pello Añorga

Ilustratzailea: Jokin Mitxelena

Elkar, 2016

ISBN: 978-84-9027-615-0

32 orrialde

“Ispilutxo” narrazioak tonu poetikoa dauka. Mutil baten ezinegona eta zalantzak dira abiapuntua. Kontrazalean honako aipamena ageri da: “Mutilek deitu didate `neska´ eta ni sentitu naiz baztertua, eta sentitu naiz triste, oso triste, asto tristea baino tristeago, zeren ni ez bainaiz `neska´. Eta joan naiz erre kara negar malkoak egitera”.

Ipuin hau generoaren eraikuntzaren inguruko gogoeta egiteko lan interesgarria da. Ipuina “metaforikoa” da: irakurleari ez zaio dena mastekatuta eskaintzen eta berak eman beharko dio narrazioari azkeneko zentzua.

Jokin Mitxelenaren marrazkiak oso ondo laguntzen dute istorioa, eta momentu askotan testua argitzen dute. Bere marrazteko era dinamikoarekin lan garbia eta liraina egin du oraingoan ere Jokinek.



## NATURAZ GOZATZEKO ESKULIBURUA

Idazlea: Alice James eta Emily Bone

Ilustratzailea: Briony May Smith

Itzultzailea: Miren Arratibel Garmendia

Ttarttalo, 2016

ISBN: 978-84-9843-695-2

64 orrialde


Dibulgazio liburua da, naturari buruzko entziklopedia txikien artean sailkatu dezakegu. Proposamen interesgarriak betetako lana da.

Ingelesetik itzulia da liburua, eta batzuetan nabaritutako dugu gure inguruneak baino lurralde lauagoak erakusten direla, baina, oro har, oso antzekoa den natura agertzen zaigu.

Liburua 64 orrialde irudidunekin osatuta dago, tamaina ertainekoa da, eta aurkibideak ditu hasieran (edukiak) eta amaieran (gaikako aurkibidea). Hiztegi bat ere badu, liburuan azaltzen diren hainbat kontzeptu argitzeko, naturaren ikerketari lotuak gehienak —hosto iraunkorrek, padura, kumuloninboak... —, baina baita ohiko erabileratik kanpora dauden hitz arruntena ere.

Edukiak zazpi ataletan banatuta daude. Sarreran azaltzen dira mendi ibilerak era egokian eta seguruan nola egin, liburu hau berau nola erabili agertzearekin batera. Gainerako atalak dira: Padurak, ibaiak eta itsasoak esploratzen; Basa-bizitza aztergai; Basoan ikertzaile; Landan; Eguraldi onerako nahiz txarrerako prest; eta Gaueko esploratzailea. Atal bakoitzak bere azpiatalak ditu, eta hain zuzen azpiatal horiek dira obraren bizkarrezurra.

Azalpen guztiak irudietan oinarritzen dira, komeni denean horma-irudi eran eta komeni denean komiki eran emanak.




## ZERUA GRIS DAGO

Idazlea: Liebana Goñi  
 Ilustratzailea: Isaak Martinez  
 Pamiela, 2016  
 ISBN: 978-84-7681-955-5  
 36 orrialde

“Zerua gris dago” albumean adiskidetasun baten sorrera kontatzen bazaigu ere, generoak eragindako aurreiritzien kontrako aldarri isila eskaintzen zaigu, laguntasunaren aldeko proposamen sotila. Neska-mutilen arteko laguntasunari buruzko istorioa da, aurreiritzi matxistak nabarmen uzten dituen, tonu baikorrear. Herria isil-isilik dago, elurtuta zuri. Bi umeek topo egiten dute plazan. Mutilak bestea neska dela ikusterakoan, atsekabetu egiten da. Baina neskek elur-pilota botatzen dio... hasi da jolasa!

Liburuak zeru grisaren azpiko zelai zurian aurki daitekeen bizitzari gorazarre egiten dio, poliki eta kontu handiz, elur maluta elurtzara erori ohi den eran, eta hoztasunean lagun bat izateak ekar lezakeen konplizitate koloretsua erakusten digu, berdin dio lagun hori neska ala mutila izan.

Album ilustratu honetan, testuaren eta ilustrazioaren oreka esan-guratsua da “Apenas aditzik duen testuaren eta abilezia handiz erai-akitako paisaia eta pertsonaien artean, ematen du isiltasuna entzun egiten dela, elur giroak koloreak indartu egiten dituela” adierazi zuen Patxi Zubizarretak, Etxepare Sariko apaimahaikideak. Izan ere, album honek 2016an irabazi zuen Haurrentzako Album Ilustratuen Etxepare Saria



## ARRAROA

Idazlea: Ainara Azpiazu AXPI

Ilustratzailea: Paula Estevez del Diego

Pamiela-Kalandraka, 2017

ISBN: 978-84-9172-007-2

32 orrialde

Estereotipoak alboratzeko proposamen umoretsua eskaintzen digu eta, aldi berean, irakurleoi gogoeta egiteko aukera helarazten digu album honek. Haurrendako Album Ilustratuen Etxepare Sariaren XI. Edizioa irabazi zuen. Lan berritzailea da, ez bakarrik testu eta ilustrazio aldetik, baita tratatzen den gaiagatik ere: liburuan agertzen den auzoko bakoitzak bere izaera bitxia, berezia du. Albumak beraz, besteekiko onarpena, errespetua nabarmentzen du. Beraz, X. Etxanizek dioen bezala “Gizakion askatasunaren aldeko lana da `Arraroa´: izan zaitetz zeu, eta onar itzazu besteak diren bezalakoak”.

Egileek modu bikainean elkartu dituzte hitza eta irudia. Testuaren bidez egoerak aurkeztu ahala, ilustrazioen bidez egoera horiek bizia hartzen dute, umorea lagun eta detaileei arreta jarrita. Hizkuntza biek originaltasuna, indarra eta askatasuna erakusten dute. Kolore biziak, berriz, areagotu baino ez dute egiten lanari darion bizipoza.

ARRAROA lan ausarta eta grafikoki interesgarria da. Album ilustratuaren definizioari trebeki heltzen dio, testua irudiaren bidez osatzen delarik, eta baita alderantziz ere. Tonua album guztian mantentzea lortzen du, liburu orekatua lortuz.





## KLARISA UME DESAGERTUAREN KASUA

Idazlea: Arrate Egaña

Ilustratzailea: Mari Mar Aguirre

Erein, 2017

ISBN: 978-84-9109-147-9

120 orrialde

Misterio eta suspense saga.

Detektibe ospetsua da Klarisa Lupabitx andrea, eta desagertuaren kasuetan eskarmentu handia du. Tresna asko eta orijinalak baliatzen ditu —gehienak atzerrian edo espioien dendan erosiak— eta primeran moldatzen da borrokan, zenbait borroka teknika ikasi duelako. Samedi, 3 koloreko katemea, berarekin eramaten du beti, txakurrek baino sen handiagoa erakusten baitu galdutakoak aurkitzeko.

Emozioa, umore, intriga eta misterioa topa dezakegu liburu hone-tan, ondo pasatzeko errezeta ezin hobea.

Ilustrazioa ere lagungarria zaió kontakizunari: Teknika mistoa erabiliz, misterioa gordetzen dute beren baitan, adibidez, gorriaren sinbologiaren erabilerarekin.

Narrazio hau, hamasei ataletan banatuta dago, eta orrialdea betetzen duten zortzi irudi indartsu ditu. Ilustrazioek Nadiaren begirada erakusten digute, berezko errealitate gordinaren aurrean, berak hartzen duen fantasiatzko ikuspegia erakutsi nahian. Horregatik nahasten dira irudi errealistak itsasoko elementuekin, irudi guztiz fantasiatsu eta erakargarriak osatuaz eta testuak dioena guztiz indartuaz. Arin irakurtzekoa, beraz.

Mitxelenaren ilustrazio dinamiko eta nahasiak ezin hobeto datoz kontakizun honen testuaren esanahira. Bere ohiko estiloan, trazu azkarra, definitu gabea, kolore deigarri eta biziak... darabiltza, marretatik at, mugarik gabe emanak. Ezerezaren iluntasunetik, erabateko argitasun eta bizitasunera. Ezin hobeto transmititzen dute mugimendu eta aldaketa etengabearen sentsazioa. Beraz, ilustrazioek beraiek ere, narrazio eta poemekin bat eginik eta hauek diotena islatuz, indartuz eta osatuz, irakurleari munduaren sorrerari eta aldaketei buruzko kontakizunaren berri ematen diote.

Liburuak hiztegia ere badakar, ezezagun izan daitezkeen hitzen azalpen laburrekin.



## OIHARTZUN ISILAK

Idazlea: Ruben Ruiz

Ilustratzailea: Maite Mutuberria

Erein, 2017

ISBN: 978-84-9109-209-4

67 orrialde

“Amak azaldu zidan nire gela, nire betiko gela, moldatu nahi zuela. Hamaika poltsa prestatu zizkidan nire gauzekin. Haien artean askotariko gauzak zeuden: kirol eta musika aldizkariak, hainbat gutun eta postal –bat edo beste maitasunezkoak–, argazkiak... Baina, haien artean, aspaldiko musika kasetekin batera, beste zinta bat aurkitu nuen: 1985-1986 ikasturtea. Zer gordeko zuen kasete horrek?”

Irakasle baten ahotik kontatuko zaigun narrazio liburua da. Irakasle honek, denboran atzera eramango duten grabazio batzuen harira, bere lehen ikasleak aurkeztuko dizkigu 12 atal laburretan. Haietan, haurren munduan barneratuko gara eta nortasunaz aritzeaz gain, haurtzaroaren eta bertan jasotakoaren garrantziaz jabetuko gara. Era berean, irakasleak hunkiarazi ditzakeen istorio baten aurrean topatzen gara.


Erraztasunez eta arin irakurri daitekeen narrazioa da, gertutasun handia duen hizkuntzan idatzia eta tonu arrunt bezain goxoan. Haurren ateraldiekin dibertitu zein identifikatu egingo gara, balio estetiko ederki zaintzen duen kontakizun honetan. Era berean, istorioko haur bakoitzari eginiko ilustrazioak, edo erretratuak, ere goxo, zein dibertigarriak dira: koloretsuak, trazu azkar eta errebeldez eginak, adierazkorrak oso eta sinbolismoz beteak, badirudi ilustrazioetan begiratuta bakarrik ezagutu dezakegula istorioetako haurren izaera. Beraz, konexio polita sortzen da testu eta irudien artean.

Gainera, Mutuberriaren ilustrazio sofistikuak bat datoz kutsu poetiko eta sinbolikoarekin. Zuhaitz adar eta giza irudi nahastuak, esanahi handiko koloreak... fantasiak beterikoak, baina kontaktzen den errealitateari erreferentzia eginez, pentsakor utziko gaituzte.

herritarrak mututuz joango dira gerrak aurrera egin ahala... Baina, azkenerako aitortuko zaigu ezarritako hitzak ezin direla ezabatu: «Beldurra, samina, gerra... ikusten hasi da. Gris eta gordin. Amamak esan bezala, izenak izana ekarri du Mirentxuren begietara».

Tonua tristea da, baina babeslea. Gerra eta gerrak eragiten duen saminaz hitz egiten zaigu, bai narrazio lehor eta hainbatetan sinboliko den testuarekin, bai garaiko argazkiez baliatzen den ordenagailu bidezko ilustrazioarekin ere. Argazki errealek errealitate gordina erakusten digute. Aldiz, marraztuta eta kolore biziz ageri diren protagonista, Mirentxu, haur-marrazkitxo batzuk, eta mordoxka bat inurri, kilker eta intsektuk haurraren begirada dakarkigute... Haizea, argazki ilunez betetako giro itogarri horretan.

“Kontakizuna osagai eta argumentuaren aldetik sinplea izanik, ez da honakoa testu inozoa, are gutxiago manikeoa edo moralismo hutsean eroritakoa, aitzitik, erreferentzietan aberatsa, metaforen erabileran sakona, esanahian konplexua, hizkeran biluzia eta eraginkorra, urruneko paisaien eta hango jendearen deskribapenetan exotikoa bezain zehatza eta estetika aldetik oso lan dotorea dela” iruditzen zaio Iraitz Urkulori. “Gainera, ia 130 urte igaro direnean ere, gaurkotasun handiko obra izaten jarraitzen duela ezin uka; azken batean, istorio honen bitartez Tolstoi, ondasunak alboraturik, giza-esentzia berreskuratzekeo beharraz mintzatzen zaigu”.



## SANTA FAMILIA

Idazlea: Eider Rodriguez

Ilustratzailea: Julen Ribas

Ikastolen Elkarte, 2017

ISBN: 978-84-946072-6-4

48 orrialde

“Familia da emanda datorren gauza bakarra. Ez lagunak, ez bizimodua, ez ingurua, familia baizik. Norak, ordea, arau horri ihes egingo dio. Sekretu bat gordetzen du. Bere sekretua. Baina hura konartzeko ordua iritsi da, eta sakratua den instituzioa eztanda egiteko zorian dago. Jakina da, ordea, iraultza txikiak behar izaten direla gauzak bere onera ekartzeko”. Horixe da komiki honen laburpena, egileen aburuz.

Ikastolen Elkartearen baitan duela hamabi urte sorturiko “Xabiroi” komiki aldizkariak argitaratu duen hamargarren komikia da “Santa Familia”. Eider Rodriguez idazleak eta Julen Ribas marrazkilariak elkarlanean egindako lana da.

Hiru senidez osaturiko familia da protagonista: Sorkunde ama eta Teodoro aita, eta Nora alaba. Maskota bat ere badago, txakur bat edo, sartu-irtenean dabilena. Euskal Herrian dago kokatuta.

Sorkunde bertan jaiotakoa da, lanbidez dietista da eta aisialdian katixima ematen die hurrei. Teodoro Gineakoa da jatorriz, gazte gaztetan Euskal Herrira etorria, elektrikari lanbidez, baina ingeniari izatea amesten du. Nora da alaba bakarra, nerabea da, igeri egiten du eta dago bizitzarekin zer egin zer ez egin erabaki behar den garai horretan harrapatuta.





## ORKESTRA LURTARRA

Idazlea: Harkaitz Cano

Ilustratzailea: Jokin Mitxelena


Elkar, 2013

ISBN: 978-84-9027-077-6

99 orrialde

Manuk orkestra bat sortu nahi du. Pixkanaka-pixkanaka aurkitzen ditu honen kideak: Aldika biolin-jotzailea; Osoki triangelu-jotzailea eta bere kardantxilo mutua; Lurrinetti anaia tronpeta-jotzaileak eta beraien ahuntza; Il Castrati Crocanti. Orkestra guztien modura, nahiko entsegu egin ostean, biran joaten dira: Marseilla, Mongolia, New York... Orkestra baten sortzeaz, bilakatzeaz eta amaieraz dihardu kontakizunak, guztira 5 orrialde dituzten 21 atalez osatuta dagoelarik.

Umore eroa aldarrikatzen duen narrazio honetan hatsik hartzeko betarik gabe datoz abentura, harremanak, elkarkidetzak, maitemina, eta baita ezagutzazko nozio batzuk ere, musikakoak eta geometriakoak, batik bat. Tonu umoretsu eta ironikoan idatzia, barre algaraka utziko gaitu. Baina halako narrazio eroetan ohikoa ez den tonu kultu eta didaktikoa ere erantsi dio Canok. Musika klasikoaren lexikoa sarri-sarri agertzen du, beste hainbat kultismo eta jakin-garrirekin. Halere, aparteko maisutasuna digresioetan erakusten du, adibidez, 5. atalean triangelu moten lista egin eta azaltzen duenean: Bermudetakoa, isoszelea, maitasunarena, musika-tresna. Edo-ta kontzeptu abstraktuak azaltzeko hartzen duen tarteetan: harpa jotzea, ziria sartzea, adarra jotzea, jelsia, maitasun triangelua, trauma, adikzioa, gutiziak izatea, pertsonen barne ezkutua, orkestra-gizona, artearen lilura...



## MAITAGARRIA ETA DESIOA

Idazlea: Mariasun Landa

Ilustratzailea: Maite Gurrutxaga


Elkar, 2012

ISBN: 978-84-9027-019-6

81 orrialde

Bai izeneko neska batek maitagarri bati lagundu zion eta, ordainetan, maitagarriak desio bat betetzeko aukera eman zion. Neskak biharamunean galdera bera egitera joateko eskatu zion, eta halaxe egin zuen maitagarriak. Maitagarria konturatu ez arren, denbora aurrera joango da eta neskak beti gauza bera eskatuko du. Azkenean, ohartu beharko neskak benetan nahi zuena desioak izateko gaitasunari eustea zela, alegia, ilusioari eustea. Idazlearen hitzetan obra honetan aldarrikatzen den ideia nagusia zera da: “Gauza okerrena ez da gure desioak ez betetzea, baizik desiratzeari uztea”.

12 atalez eta 9 irudiz osatutako liburua da. Eleberriz izateko bidean geratu den narrazio luzea, amandre ipuinen ezaugarriak baliatuaz idatzita dago, baina idazlearen erara, libreki interpretatuta, bereziki errealismo kritikorako duen joerari jarraituaz. Ahozko narrazioetatik gertu, idazleak maitagarrien ipuinak (fantasia) eta gaurko gizartearen pasadizoak (errealitatea) uztartzen ditu. Horrela, bada, gazteen kezkatik gertuago kokatzen da istorioa eta kontakizunean sinbolismoaren pisua nabarmena izanda, irakurle batzuek esanahi sakonak aurkituko dituzten bitartean, «arriskutsua da desio dugun guztia berehala lortzea», edo denboraren pisua; beste batzuk, magia kontuak direlakoan, plazerez eta irribarretsu murgilduko dira istorioan. Narrazio labur honetan testuak erritmo arina hartzen du,



## OZ-EKO AZTI HARRIGARRIA

Idazlea: L. Frank Baum

Ilustratzailea: Elena Odriozola

Itzultzailea: Juan Kruz Igerabide

Denonartean, 2015

ISBN: 978-84-15756-83-5

117 orrialde

Dorothy Kansasen bizi da, osaba-izebekin eta Ttotto txakurrarekin. Zikloien erauntsi gogorrei aurre egiten ohituta daude Kansaseko bizilagunak. Baina behin, halako zikloi batek Dorothy eta Ttotto airean eramango ditu, etxe eta guzti. Hegaldia ahitutakoan lurralde ezezagun batean amaituko dute: Ozeko Herrialdean. Bidaia baten hasiera izango da. Bidaia horretara hiru bidelagun batuko zaizkie: lehoi izubera, garunik gabeko txorimaloa, eta bihotzik gabeko latorrizko aizkolaria. Bidaiari bakoitzak eskaera bat dauka Oz-eko aztia-arentzat: Dorothyk etxera itzuli nahi du, lehoiak adorea, txorimaloak garuna, eta latorrizko aizkolariak bihotza. Iritsiko dira Oz-eko aztia-rengana, eta jabetuko dira bidaia ez dela hasi baino egin, agian aztia ez duela desiratzen duten hori eskaintzerik... agian ez diela inork eskaini beharrik, dagoeneko eskuratu dituztelako...

Nobela 24 kapitulutan banatuta dago eta narrazio osoan zehar ha-maika gai jorratuko dira: fantasia, laguntasuna, esperantzak, desioak, daukaguna vs ez daukaguna, besteena beti hobetzat hartzea, nortasunaren eraikuntza eta autoestimua... Nobela honetan agerikoak dira pertsonaien konplexutasun psikologikoa, kontaketa-aren gara-pen irudimentsua, eta mezuaren, istorioaren eta xede irakurlearen artean dagoen sintonia. Funtsean, Baum-ek obraren aitzinsolasean aitortzen duen gisara, amandre ipuin moderno bat da, haurren entretene-garri bezainbat haurren hezigarri.

nahasiak eta azkarrak eginez, adierazkortasun handiko ilustrazioak egin ditu. Kolore aldetik guztia da iluna, hiltzaileen eta odolaren gorri indartsua izan ezik. Tonu tristea eta tragikoa darie marrazkiei, hain zuzen baladak eskatzen duen tonu dramatiko berbera. Balada zatika banaturik agertzen da orrietan zehar, baina kasu honetan ilustrazioek hartzen dute garrantzia. Ilustrazioek denboran atzera egin eta baladak kontaktzen duenetik haratago garamatzate, baladaren interpretazio baten aurrean gaude. Kasu honetan ilustrazioek kontaktuko baitigute balada.

osorik ikusten delarik, ohiko ekintzaren bat azalduko zaigu... aurretik uste genuena hankaz gora jarriz. Hots, liburuan agertzen den jolasa bikoitza da, idazleak testuetan egiten digu proposamena, ilustratzaileak irudietan; biek ala biek erregela berberak erabiliz... biek tonu umoretsu eta jolastian arituz.

“Erotik” oso arin irakurtzen den liburua dugu; modu zuzen eta bizian idatzia, deskribapen zehatz eta laburrekin, ekintzei garrantzi handiena emanez. Lexikoa ere oso aukeratua da: anbiguotasun handiz aukeratutako hitzak gehienetan, edo alderantziz, esanahi bikoitzekoak besteetan; baina kasu batean nahiz bestean irakurlea jolas egitera animatzeko asmoz aukeratuak.



## TIGRE BATEKIN BIZI

Idazlea: Harkaitz Cano

Ilustratzailea: Maite Gurrutxaga

Elkar, 2017

ISBN: 978-84-9027-742-3

48 orrialde

Era askotako interpretazioak eduki ditzakeen testua da. Etxe bateko biztanleek esaten dute tigre bat dutela etxean. Haren beldur bizi omen dira. Horixe da abiapuntua.

Egileek ipuin edota poema grafiko bat osatu dute. Metafora iradokitzaile eta indartsu baten bitartez, testuek eta marrazkiek helburutzat dute tigre batekin bizitzeak sorrazten duen egonezina eta zirrara batetik, eta eragiten dituen hainbat galdera argitara ekartzea bestetik.

Kolore berdea da nagusi marrazkietan. Tigrea bera ez da inon ageri, bai ordea haren arrasto batzuk. Ilustratzaileak ez du istorioa “osatu”. Beste bide paralelo bat proposatu du.

bezalako gai sakonagoekin jarriko ditu gazteak harremanetan, gizar-teari begira, jokoetako pantailetatik haratago.

Hogeita bost atal laburretan banatzen den eleberri hau arin irakurtzen da eta protagonistaren azaletik kontatzen den narrazioa izanik, gazteekiko gertutasun handia erakusten du. Tonu arrunt eta hurbilekoan kontatua, intriga sorraraziko digun istorioa da, amaieraraino ez baitugu istorio ezberdinen arteko erlazioa guztiz ulertuko. Irakurleek zer pentsatu behar duten adierazi baino, zer pentsatua eragingo duen nobela da hau.

batera bizitzera joateko promesarekin ixten da liburua, haurtzaro izoztua betiko atzean utziz.

Esan daiteke, zortzi atal luzeetan banatutako istorio hau bakar-dadeaz, nortasuna topatzeaz eta ametsez diharduela. Haur bati helduarora bidean sortzen zaizkion gogoeta, kezka eta ilusioak kontatuko zaizkigu tonu poetiko eta jasoan. Hain zuzen, eleberriak hirugarren pertsonako narratzailea darabil, gertakizunei oso atxikia eta gehienetan protagonistarengan fokalizatua, baina protagonistak berak kontatu izan balu baino hizkera libre eta poetikoagoa erabiltzeko aukera ematen diona. Hasiera batean ez dirudien arren, kontakizunean aurrera egin ahala intriga eta misterio kutsua areagotu egingo da eta irakurle abilek erraz eta gogoz irakurriko dute.

“Izarretara bidean zihoan txakurra” idazle bikain baten lana da: gazteentzat idatzitako eleberri honek Gazte Literaturako liburu onenari eman ohi zaion saria jaso zuen 1990ean Suedian, eta Gazte Liburu onenaren saria 1993an Alemanian.



Akuarelaz eta arkatzez egindako marrazkiek era oso bisualean kontatzen dute istorio hau, eta liburuaren egileek emandako elkarrizketetan aipatzen duten imajinario berezia ere antzematen da orrialdeetan barrena aurrera egin ahala.

Literatura Lanaren Ilustrazioa Euskadi Saria irabazi zuen 2014an Maite Gurrutxagak obra honekin.

ume soldaduak dira, eta indarkeria eta gerra nagusi diren inguru-  
nean bizirik irauteko borrokatzen dira.

Istorioak gatazka etikoak eta moralak planteatzen ditu; horietan,  
egia edo boterea lortzeko borroka eta erlijio fedea zalantzan  
jartzen dira.

Nobela errealista da, gerran dagoen Ekialde Hurbileko hiri batean  
kokatua. Kontaketaren zeregin nagusia gerraren eguneroko gordina  
ikustaraztea da, gaztetxo batzuen begietatik. Bizitzeko oinarritzkoak  
diren beharrak, gizakia eusten duten balio etikoak, eta antzeko gaiak  
12-14 urte bitarteko hiru nerabeen pentsamenduen oinarria izango  
dira.

Egun bakar batean, egunsentian hasi eta gauera arteko tartean, bi  
protagonistek bizi dutena kontatzen da, era kronologikoan, eguna  
zatitzen duten sei partetan banatuta (egunsentia, goiza, eguerdia,  
arratsaldea, iluntzea, eta gaua), eta guztiak berrogei ataletan ba-  
natuta. Bizirik irauteko erabiltzen dituzten estrategiak erakusten  
zaizkigu, bai eta inguru latz horretan gaztetxo batek eduki ditzakeen  
pentsamenduen zertzelada batzuk ere.

biltzen ditu app honek: puzzleak, memoria-jokoak, hitz-jokoak, 7 desberdintasunak bilatzeko jokoak, abestiak, 2.5D efektuko irudiak, eta bestelako hainbat joko.

Irakurzaletasuna sustatzen jarraitzeko beste bide batzuk saiatzea izan zen app honen sorreraren helburua: Papera eta teknologia berriak uztartzea, tradizioa eta modernitatea batzea, eta literaturaz eta aisialdiaz euskaraz eta euskarri teknologiko desberdinen bidez gozatzeko aukera berri bat eskaintzea. Erabili ahal izateko komenigarria da paperezko liburua esku artean izatea. Horrela, papera eta jatorrizko obra dira egungo teknologia berrien munduan murgiltzeko giltza nagusia. Izan ere, app-ak eskaintzen dituen zenbait jolasekin gozatzeko eta liburuko hainbat orrialde errealitate areagotuan ikusi ahal izateko, beharrezkoa da paperezko liburua esku artean izatea.

Androidetarako eta iphone/ipad-etarako bertsiotan dohainik esku-ara daiteke bakoitzari dagokion saltoki birtualean, ordenagailuaren bidez ere erabil daiteke. [www.galtzagorri.eus](http://www.galtzagorri.eus) web gunean dago ordenagailurako aplikazioa. Aplikazioa martxan jarri aurretik, automatikoki Unity programa deskargatzen da, eta berau exekutatzeari izango da erabilgarri aplikazioa.

Ordenagailuan erreproduzitu ezin den bakarra Beste dimentsio bat ataleko errealitate areagotua da.

“Maria Goikoak batbirulau!” hurrek euren kasa nahiz helduen laguntzarekin irakurtzeko liburua denez, aplikazioa ere hurrek (4 eta 8 urte bitartekoentzat dago gomendatua) eta helduek bakarka nahiz elkarrekin erabiltzeko modukoa da; oso intuitiboa eta erabilgarria da, eta laguntza pantailak ere baditu. Hortaz, abiapuntua Haur eta Gazte Literatura izan arren, publiko orokorrari zuzendutako aplikazioa da. Izan ere, liburuen irakurketa konpainian egin daitekeen bezala, aplikazioak eskaintzen dituen jolas gehienak ere konpainian nahiz bakarka gozatzekoak dira.

garren app-a da hau beraz, lehenengoa “Maria Goikoak Batbirulau! App”a izan baitzen.

“Txan fantasma” 8-10 urteko haurrek irakurtzeko liburua denez, aplikazioa ere 8-12 urte (txikiagoek zenbait joko erabil ditzakete, beste batzuk nekez) bitarteko haurrek bakarka nahiz lagunekin edo senideekin erabiltzeko modukoa da; oso intuitiboa eta erabilgarria da, eta laguntza pantailak ere baditu.

Jolaserako proposamen desberdinak eta nazioartean adin horietan arrakasta duten hainbat jolas-mota eskaintzen ditu “Txan fantasma app”ak. Liburuaren irakurketaz gozatzeko ez ezik, jolaserako lagungarri izango da gehienetan. Hortaz, irakurketa eta ulermena lantzeko tresna ludiko erabilgarria suertatuko da maiz. Izan ere, aplikazio honek ipuineko pasarteak edo ilustrazioak oinarri dituen joko asko eskaintzen ditu.

Multiplataforma erako aplikazioetan egin daitezkeen proposamenik berritzaileenak eta duinenak biltzen ditu app honek, jatorrizko testuaren eta irudien garrantzia indartuz:

-Paperaren 2 dimentsioetatik pantailaren 3 dimentsioetara egiten du jauzi.

-Txanmagotxia: maskota birtual bat da. Txan fantasmarekin esku-jolasak burutu, kantatu, jolastu... egin dezakegu, baita jaten eman ala garbitu.

-Jolasak: kantuak, puzzleak, jolas herrikoiak (gordeketa, harrapaketa...), ipuineko pasarteekin lotutako asmakizunak eta antzerakoak topatuko ditugu. Ohiko jolas digitalen egokitzapenak dira, Txan fantasma eta Karmentxuren munduan barneratzeko eginak.

